



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko azaroaren 25ean, 17:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-10-28ko ohiko osoko bilkuraren akta, (10.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hirigintza batzordeko kide berria izendatzea, Hirigintza Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 3an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Batzorde informatiboetako eta kide anitzetako organoetarako kide berriak izendatzea, puntua gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzean Lezesarri auzorako oinezkoendako ibilbidea egokitzeko proiektua onura publikokotzat jotzea eta desjabetze ondorioetarako ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari behin betiko onespena ematea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2021/2P kreditu aldaketa espedientea onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra (baserri obra), Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Diru-laguntza izendun bat sortzea (Gipuzkoako Urak) onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.
9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2020ko azaroaren 20ko Osoko Bilkuran 2022 ekitaldirako onartutako konpromiso-kreditua (Gipuzkoako Urak) baliogabetzea onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 16an.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lur Nogales García-ren eskaera Olaburuko lokalaren kontratua luzatzeko, Sozioekonomia eta turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko azaroaren 10ean.
11. Hala badagokio, presako gaiak.
12. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: Azaroak 25 emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.
13. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: Migraziorako Euskal Itun soziala "Jaso nahi genukeena eskaintzea"-ri buruzkoa.
14. EH Bildu eta EAJ-ren adierazpen instituzionala: 2021eko Euskararen nazioarteko egunari buruzkoa.
15. EH Bildu taldearen mozioa: Interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa.
16. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
17. Bixente Urrutia Elexpuru jaunak zinegotzi-karguari uko egin diola jakinaraztea.
18. Urriaren 25etik azaroaren 19ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 1078 zenbakitik 1181zenbakira.
19. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzatuko zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko azaroaren 22an

